

Gure izarra

JEAN LOUIS DAVANT



EUROPAN gauden naski euskaldunak: betidanik geografiaz eta historiaz; gero eta

gehiago ekonomiaz eta politikaz. Ezin gara izan Albania ez eta, duela hogeitun urte, batzuek zioten bezala, «Europako Kuba».

Gure arazoa ez du konponduko Europak: guk dugu egin behar. Baina horretarako eremu berri bat eskaintzen digu. Muga hausten digu. Iparreruntz itzultzen zaituzte hego aldekoak, ez baitago Madril aldean Bruxelles. Hegoeruntz itzultzen gaitu ipar aldekoak, hor baitago euskal indarra.

«De facto», ekonomiaz eta kulturaz, bat egiten ari da euskal eremu osoa: biltzen ari, kasik automatikoki, mekanikoki, Newtonen sagarra bota zuen tropismo astunon bultzaturik. Har gatik ez gintuzke gu finkatu behar materialismo hutsak. Bergsonek zioen bezala, «un supplément d'âme» eman behar genuke hor euskaldunak.

Gogo-bihotzen biltzera, zazpi eskualdeen elkartutera bultzatzen gaituzala euskal politikak, ez alderantziz beti eta gehiago zatitzera.

Gure izarra zergatik ez genuke behin ukan behar Europako banderan? Hamabi baizik ez ditu honek, 50 aldiz USA-koak. Badago arte zabala gure ta beste batzuentzat.

Okasio bila

INAKI URIA



KONPONBI-DERAKO aukera galdu eta okasio bila darrai Joseba Arregik.

«Leitzarango autobiodearen kasuan konpromisoak eta konponketak bideragarri gertatu badira, zergatik ez EGUNKARIAREN kasuan?» galdetzen zuen Dionisio Amundarainek iazko 'Euskal Kulturaren Urtekarian'. Eta erantzun ere erantzuten zion: «Badirudi, alabaina, jendeari konpromiso eta konponketen aukerak bideragarri gertatu ahal izateko, indar faktikoak atera behar zaizkiola bidera».

Amundarainen galdera bera egingo nuke neronek ere: «noiz iritsiko ote euskararen inguruan diharduen munduak interlokutore izatera?». Ikastolak eta Buesa. Euskal Kultur mundua eta Arregi. Horiek dira interlokutoreak Euskal Autonomi Elkartearen.

Lurraldearekin adostutako 'Muga' autobiode trazaketa alderdi guztien aurka atera dezake aurrera EAJK Gipuzkoako Diputazioan. Aldiz, EA, EUE eta HB EGUNKARIA laguntzearen alde ari badira ere, EAJK ez dio laguntzarik eskaintzen eta, gainera, publizitate instituzionala blokeatu egiten dio.

Jeltzale asko dago EGUNKARIA eta Euskal Kultur mundua laguntzekotan, «baina... Joseba Arregik erabaki behar du» entzuten diezu bakarka mintzo direnean.

Dionisiok dioten moduan interlokutore indartsuagoak beharko ditu euskal munduak. Ala euskaltzaleagoak Jaurilaritzak.

EL MUNDO

Frantzia, anti-sistema botoaren gorakada

Atzo hautesle goi gehien gustatu zitzaiona, alderdi tradizionalerik ilusiorik eza erakustea izan zen, agintean dagoen alderditik hasita —1960ko hamarkadatik hona izan duen emaitzarik txarrena lortu du—. Birpolarizazio gairari amaiera iritsi zaio.

Hautesleek faktura handia pasa die sozialistei langabezia eta korrupzioaren gorakadatik; Miterrandek ez du jakin izan etxeko zauri horiek sendatzen, norabide jakinik gabeko bihurtu den atzerri politikako lorpenekin. Eskuinak eta ezkerrek ez dute jakin sozialis-

ten ahultasunaz baliatzen.

Koiunturaz baliatu direnak alderdi ekologistak izan dira, inkestetan aurrikusitakoa baino emaitza kaskarragoekin izan arren, eta zer esanik ez Fronte Nazionala.

EDITORIALA

egin

Boikota

Litekeena da Euskal Autonomi Elkarte Administrazioa 'Egunkariarekiko' garatzen ari den ezinikusizko historiak, gauzatzeko moduagatik, sailburuaren zigilu pertsonal handia edukitzea, baina horrela izango balitz, EAJK ez du bere erantzukizuna handiagotu baino egiten gai horren inpasean. Esanguratsua da orain 'Egunkaria' errealitatearen meritua onartu arren, ekimenari boikot intransi-



ZULET / EL CORREO

gentea egiten dion euskal alderdi bakarra jeltzalea izatea.

J. IRATZAR

EL DIARIO VASCO

Beste inflexio puntua

Eusko Alderdi Jeltzaleko buruzagiek, Barne ministroaren laguntzarekin, ETA, KAS eta HBn aldaketa sakonak

ematen ari direla adierazi digute eta euskal demokraten mugimenduak eskatzen dituzte bakebidean aurrera egin ahal izateko. Baina ETAREN munduan uesteko aldaketa sakonak aztertu, diagnosis egin, baloratu eta batez ere argitara ematen dituztenak, alderdi demokratikoetako buruzagiak dira, inguru terroristako inork ez bait du hori jendaurrean egiten.

JAIME MAYOR OREJA

ZUZENDARIARI

Sexulinguistika. Jose Martin Apalategiri gutun irekia.

Martxoaren 18ko EGUNKARIAN J.M. Apalategik koordinatuko duen liburu sail berria aipatu zen. Ez nuke Elkar argitaletxearen aldeko marketing egin nahi, ez bait du horren beharrik; ez dakit liburu berri horiek onak ala txarrak izango direnez ere, eta Jose Martin doi-doi ezagutzen dut. Bakarrik bere liburu sailari eman dion izenburuz ihardungo dut: 'Pertsona eta Sozietatea'.

Azken denbora latz honetan, bi hitz horien lekuan, 'Gizona' (edo gizakia) eta 'gizartea' espero genuen. Baina Jose Martin beti pertsonazalea izan da, 'pertsonartea' ere erabili izan du garai batetan sozietatea esateko; hitzak ez zuen arrakasta handirik lortu, 'gizartea' inposatu zaigu, baina gure gizonak ez du amore eman. Nik esan nahi nion sekulako poza ekarri didala orain erabili duen terminologiak, 'giza', 'gizon', 'gizaki' eta abarren inflazio itzela dela eta nazka nazka eginda naizelako. Xelebrekeriak ere egiten dira gero eta gehiago: zenbaitetan —EGUNKARIAN bestetan bezala—

'arazo sozialak' esateko ez da 'gizarte arazo' ere esaten, 'giza arazo' baizik. Hots, delako arazo horiek, ume txikierak berengain dituzten aita dibortziatuak, edota prostatakoak diratekela, diñot nik... Komentariorik ez du merezi 'haur' edo 'ume' hitzen lekuan 'seme' irakurtzen behartzen gaituztenean («ez dago amaren semerik» eta horrelakoak). Orain gutxi dela soziolinguista gazte bati 'gizalinguistika' eta 'andrologia' (helduendako irakaskuntza teknika) hitzak entzun nizkion, belarriak ez banninduen engainatu.

Borondate oneko jendeek diotenez, 'gizonak' sexua baldin badu, 'giza' erroak eta haren eratorriak sexugabeak ei dira, 'anthropos' antzeko zerbait. Seguraski 'anthroposari' buruz ere bada zer esan, baina hori ez da gure kontua. Nik ez dut ulertzen nola hitz baten sexua alda daitekeenik, eratorketa egiteko itxuran agertzen deanean, ez eta zergaitik 'emazteki' guztiz femeniinoa izanik, 'gizaki' aingeruak bezain neutro den: danak ala inor ez!

Alta, konbentzitu naiz oraingo euskararen 'gizaren' alde egin den aukera ez dela inozentea: inguruko hizkuntz sexistekiko joera mimetikoa da (espainolez 'hombre', frantsesez, 'homme') gure artean aspaldidanik


hasi den tradizio jakintsua (eta gure kasuan klerikala, gainera). Herri tradizioan, ordea, 'emazte' zein 'gizon' hitzak sexudunak izan direlakoan nago. Iparraldean espezieko banakoa izendatzeko 'jende' erabiltzen da; hortaz adibide esankorak badira: Zuberorako hartzak «jende baten itxura duela» esan zuen ihiztari batek (Txomin Peillenen arabera); Amikuze aldean diotenez, «ahuntza ez da kabala eta emaztea ez da jende» (Xarles Bidegainen jaso); ez dakit zer den jasangaitzago, aintzineko misoginia gordina, ala gaur egungo kultismoaren zurikeria maltzurra.

Dena den, orain dozena bat urte, 'sozietate', 'jendarte' eta 'gizarte' terminoen aukera bazen euskaraz eta Mugikaren hiztegian azken biak agertzen dira. Orain ingelesezko 'man' omnipresente hori nola ordeztu daitekeen gogoetan ari direnean, euskaldunak 'gizarte', 'giza eskubide' (nahiz eta hauek sexu diskriminaketak gaitzetsi) eta halakoak hautatu dituzte. Ez denok. Horregaitik Jose Martin Apalategiri eskerrak bihurtu nahi nizkion.

ANUNTXI ARANA

Baiona

GAIA JARRITA



Abertzaleak Iparraldeko hauteskundeetan

Abertzaleak bakarrik gira herriaren salbatzeko hauteskundeak molde bat dira eragina izartzeko igandekoak gai izan dira bi tantoz aintzinzatzeko ez da hain gaizki bainan ez aski kukurruko egiteko bada zer egin gure mezua herritar danek hartzeko.

JEAN LOUIS 'LAKA'

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEHARRRETA, INAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11